DIMEKO LUDOTEKA ETA GAZTELEKU ZERBITZUAK KUDEATZEKO ASMOZ PROZEDURA IREKIA ETA SINPLIFIKATUAREN BITARTEZ BURUTU GURE DEN KONTRATAZIOA ARAUTZEKO XEDAPEN BILDUMA.

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea Dimako herrian dauden ludoteka eta gazteleku proiektuen dinamizazio eta kudeaketaren zerbitzuaren esleipena egitea da.
Zerbitzu guztiak plegu honetan ezarritakoaren arabera eta Udal Zerbitzuen arduradunen jarraibideak betez eta haiekin koordinatuta beteko dira.

Zerbitzu hau Herri hezitzailea, eskola herritarra irizpideen arabera definitzen da:

- Umea eta gaztea osotasunean garatzea.
- Aukera bardintasunean, aniztasunean eta askatasunean heztea.
- Jolasa medio, hizkuntzaren eta balio hezitzaileen sustapena lantzea.
- Hezkidetza eta kultur aniztasuna bultzatzea.
- Parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena sustatzea
- Ume eta gazteei ikasteko askatasuna ematea, norberak dituen beharrak eta mugak ezagutu, horiez jabetu eta onartu.
- Haurrei sormena erabiltzeko aukera zabaltzea.
- Euskararen erabilera areagotzea eta kalera zabaltzea.
- Naturarekin harremana sendotzea.
- Ume eta gazteei hitza ematea eta entzutea, eta esaten duten hori ahal den neurrian praktikara eramatea.

- Balioetan heztea, adibidez, hizkuntzarekiko maitasunean, autoestimuan, besteekiko nahiz ingurunearekiko errespetuan, aniztasunean, autonomian, lankidetzan, laguntasunean, parte hartzean,…

Garatutako ekintza guztietan ondoko zehar-lerroak egongo dira:

- Hizkuntzaren normalizazioa
- Hezkidetza
- Inklusioa

2.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Dima, herri hezitzailea **Dimesten** egitasmoaren proiektua garatzeko, Dimako Udalak umeantzako ludoteka 4 eta 12 urte bitarteko haurrentzat eskaintzen duen zerbitzua da.

Eraikin berean, barikuetan, Gaztelekua dago, 12 eta 18 urte bitarteko gazteentzat zerbitzua eskaintzen duena.

Danok lekua izango duten espazioak izango dira, guztion ezaugarrietara moldatutako espazioak.

Herriko parke eta belardiak ere ume eta gazteen jolasleku izango dira.

2.1. Ludoteka

Ludoteka 4-12 urte bitarteko haurrei zuzendutako zerbitzua da eta definitzeko lau irizpide nagusi hartzen ditugu kontutan:

- Ludoteka haur eta gaztetxoen aisialdian kokatuta dagoen jolaserako espazio bat da. Talde topaketako eta beste ume batzuekin jolasteko lekua, hezitzaile profila duten helduek lagunduta, jarduera ludikoak aholkatzen edo laguntzen dituztenak.

- Jolasa tresna moduan erabiliz, haurrei askatasunean pentsatzeko, sortzeko edota adierazteko aukera ematen dien espazio bat da.
- Beldurrei aurre eginez, bakoitzaren gaitasunak indartuko dituen espazio bat da.
- Norberaren behar eta iritziak inork epaitu gabe azaltzeko gunea.

Ordutegi eta egutegia:

Urritik maiatza bitartean zabalik egongo da umeantzat eta programatutako ekintzaren bat egingo da gutxienez astean behin.

Umeantzako zabalik egongo da astelehenetik barikura arte 16:30etatik 18:30tara. Ordutegia aldatu ahal izango da zerbitzuaren beharren arabera eta udalaren iritziarekin bat eginez. Udalak horrelakorik erabakiz gero, ordutegiaren barruan umean adinaren araberako txandakako zerbitzua antolatuko da.

Zerbitzua 4 eta 12 urte bitarteko umeak erabili ahal izango dute. Ezin izango dira 25 ume baino gehiago izan aldi berean. Une edo momentu konkretuetan ratio hori beteko balitz, udalak bere gain hartuko luke begirale berri baten kostua.

Ordutegitik aparte, ludotekako langileak, egunero, ordu erdi bat eskainiko die programa prestatzeko eta lantzeko beharrizanei.

Interes publikoko arrazoiak direla eta, zerbitzua antolatzen duen enpresari aldez aurretik eta garaiz abisatuz gero, udalak ordutegi hauek guztiak aldatu ahal izango ditu, unean uneko beharren arabera.

Ludotekak hurrengo betebeharrak izango ditu urtean zehar:

- Ludotekako programazioa, dinamizazioa eta ebaluaketa.
- Haurren parte hartze prozesuak sustatu.
- Haurrentzat interesgarria izan daitekeen ahalik eta informazio gehien jaso, garatu eta sortu.

- Informazioaren zabalkundea egitea, Dimako umeengana helduko dela bermatuz.
- Koordinazioa (udal arduradunekin, herriko eragile soziokulturalekin...)

Ondorioz, hurrengo funtzioak bete beharko ditu:

- Umeen parte hartzea sustatu eta bermatu.
- Umeen beharrizanak identifikatu.
- Mota ezberdineko jolasen eskaintza zabala eskaini.
- Umeen garapen psikomotore, emozional eta kognitiboak sustatzeko espazioaren antolaketa egokia egin.
- Umeekin balioetan oinarritutako dinamizazio saio ezberdinak gauzatu.
- Kalte edo apurtutako materialak berritu (Gainontzeko udal baliabide eta zerbitzuekin koordinaturik)
- Umeen familiekin harreman zuzena izan.
- Umeen nahien eta egoeraren informazio eguneratua izan.
- Ludotekako lokala ireki eta itxi lokalaren txukuntasuna bermatuz.
- Herriko programazio soziokulturalean parte hartze aktiboa izan.
- Eskolarekin lankidetzan aritu eta zuzeneko harremana izan.

Ludotekako hezitzaileak hurrengo ekintza moten ardura izango du:

- ✓ Hileroko programa, ekintza ezberdinekin (2 gutxienez) gauzatzea.
- ✓ Herriko urteroko ospakizunetan parte hartzea.
- ✓ Udal arduradunekin harreman zuzena izatea
- ✓ Herriko eragile ezberdinekin elkarlan eta parte hartze zuzena izatea.
- ✓ Izen emateak gauzatzea

2.2. Gaztelekua

Udal gaztelekuaren zerbitzua planifikatu, dinamizatu eta kudeatu behar da plegu honetan ezarritakoaren arabera, Hezkuntza eta Gazteria Udal Zerbitzuen jarraibideak betez eta haiekin koordinatuta. Dimako gaztelekua 12-18 urte bitarteko gazteei zuzendutako zerbitzua da. Gaztelekua Dimako gazteentzako biltzeko gune eta aisialdi-eskaintza zabala sortzeko gunea izango da zuzeneko parte hartzearen bidez. Ingurune euskalduna eta balioetan oinarritutako lanketak egiteko aukera izango dute hezkuntza ez formalean oinarritutako proiektuan. Gazteen interesguneetatik abiatutako programak osatu beharko dira garapen pertsonal eta kolektiboan aurrerapausoak emateko.

Egutegia eta ordutegia.

Urritik maiatza bitartean zabalik egongo da gazteentzat:

Gazteentzako zabalik egongo da ostiraletan, 19:00tatik 21:00tara.

Hezitzaileak astean 4 ordu lan egin beharko ditu. Prestakuntza lanetarako edo/eta, sortzen diren ekintza berezietan beharrezko ordutegiz kanpoko ekintzak egiteko.

Ordutegia aldatu ahal izango da zerbitzuaren beharren arabera eta udalaren iritziarekin bat eginez.

Gaztelekuko arduradunak hurrengo betebeharrak izango ditu urtean zehar:

- Hezitzaileen eta gazteen (baita gazteen arteko) harremana izango da zerbitzuaren oinarri nagusia.

- Gazteen eskaera eta azterketa etengabea, eta hauek aisialdi eskaintza integral baterako bideratu.

- Gaztelekuko programazioa, dinamizazioa eta ebaluaketa.

- Gazteen parte hartze prozesuak sustatu.

- Gazteentzat interesgarria izan daitekeen ahalik eta informazio gehien jaso, garatu eta sortu.

- Informazioaren zabalkundea, Dimako gazteenagana helduko dela bermatuz.

- Koordinazioa (udaleko arduradunekin, herriko eragile soziokulturalekin...)

- Gaztelekuko lokalaren irekiera eta itxieraz arduratu eta bertan gazteak libreki jardun ahal izateko hornitu.

Ondorioz, hurrengo funtzioak bete beharko ditu:

- Gazteen parte hartzea sustatu eta bermatu.

- Gazteen beharrizanak identifikatu.

- Mota ezberdineko jolasen eskaintza zabala eskaini.

- Gazteekin balioetan oinarritutako dinamizazio saio ezberdinak gauzatu.

- Gazteen autonomia eta auto-kontzeptua garatzeko ekintzen planifikazioa.

- Gazteen nahien eta egoeraren informazio eguneratua izatea.

- Kalte edo apurtutako materialak berritu (Gainontzeko udal baliabide eta zerbitzuekin koordinaturik)

- Gaztelekuko lokala ireki eta itxi lokalaren txukuntasuna bermatuz.

- Udal arduradunekin nahiz inplikatutako bestelako eragilerekin harremanak izan.

- Herriko programazio soziokulturalean parte hartze aktiboa izatea.

- Eskualdeko institutuekin eta Arratiako Mankomunitateko Gazteria arloarekin lankidetzan aritzea eta zuzeneko harremana izatea.

Gaztelekuko hezitzaileak hurrengo ekintza moten ardura izango du:

- ✓ Hileroko programa ekintza ezberdinekin (2 gutxienez) gauzatzea.

- ✓ Herriko eragile ezberdinekin elkarlan eta parte hartze zuzena izatea.

- ✓ Herriko urteroko ospakizunetan parte hartzea.

- ✓ Udal arduradunekin harreman zuzena izatea

3.- GIZA BALIABIDEAK ORDUTEGI ETA EGUTEGIAK

Esleipendunak zerbitzu osoa eskaini ahal izateko behar den langile taldea eduki beharko du plantilan. Dimako Udalak ez du inolako lan kontraturik, ez lan erantzukizunik, langile horiekin guztiekin.

Eremu bakoitzean garatu behar diren harreman guztiek kasuz kasu aplikatu beharreko lege araudia bete beharko dute. (Gizarte Segurantza, Lan arriskuen prebentzioa eta abar)

3.1 GIZA BALIABIDEAK

Jarraian zehaztutako zerbitzuetako baliabide pertsonalak eta zerbitzuak bete behar dituen ordutegi eta zehaztapenak azaltzen dira. Dena dela, zerbitzu guztia kudeatu ahal izateko gutxienez bi langile kontratatu beharko dira zerbitzuak egoki kudeatzeko eta ezinbestekoa izango da Bizkaiko Gizarteko esku-hartzeko lan hitzarmena errespetatzea eta azpian zehaztutako orduak ezartzea langile bakoitzari.

ZERBITZUA	LANALDIA	KATEGORIA
Ludoteka	16 ordu/astean	Begirale (4.kategoria)
Gazte-lekua	4 ordu/astean	Begirale (4.kategoria)

Lan-ordu hauetatik kanpo edo osagarriak izango dira, proiektuetan sortu daitezkeen programa berriak. Programa berriak aurrera eramateko beharrezkoak diren lanaldiaren gehikuntza egiteko aukera egongo da udalak programa estrategikotzat izendatu eta aurrera eramatea erabakitzen badu.

3.1.1. GIZA BALIABIDEEN FUNTZIOAK ETA BALDINTZAK

1. Ludotekako hezitzailearen funtzioak:

   - ✓ Ludotekako koordinazio, programa eta gidaritza.
   - ✓ Herriko eragileekin koordinazioa.
   - ✓ Barne koordinazioa (Dimako udala).
   - ✓ Dimesten, herri hezitzaileko talde motorrean parte hartzea.
   - ✓ Programaren ebaluaketa jarraitua egitea: hileko ebaluaketa, hiruhileko balorazioa eta urteko memoria txostena.

2. Gaztelekuko hezitzailearen funtzioak:

   - ✓ Gaztelekuko koordinazio, programa eta gidaritza.
   - ✓ Herriko eragileekin koordinazioa.
   - ✓ Barne koordinazioa (Dimako udala).
   - ✓ Dimesten, herri hezitzaileko talde motorrean parte hartzea.
   - ✓ Programaren ebaluaketa jarraitua egitea: hileko ebaluaketa, hiruhileko balorazioa eta urteko memoria txostena.

3.1.2 GIZA BALIABIDEEN GUTXIENGO IKASKETAK

1. Ludotekako hezitzailearen funtzioak:

   - ✓ Haurren eta gazteen aisialdiko jardueren dinamizazio titulua edo baliokidea.
   - ✓ Euskara: C1 edo baliokidea.
   - ✓ Sexu-Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria.

2. Gaztelekuko hezitzailearen funtzioak:

   - ✓ Haurren eta gazteen aisialdiko jardueren dinamizazio titulua edo baliokidea.
   - ✓ Euskara: C1 edo baliokidea.
   - ✓ Sexu-Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria.

3.2. ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA

Langileak lan jardunaldiaren zati bat esku-hartzeetarako izango dute eta beste zatia prestaketarako. Prestaketa orduetan egin beharreko koordinazio bilerak, formakuntzak, Herri hezitzaileko talde motorreko bilerak, ebaluazio txostenak, erosketak, esku-hartzeen dinamizazioak etab. sartuko lirateke.

ZERBITZUA	Eskuhartzea	Prestakuntza
Ludoteka	Astelehenetik-Barikura: 16:30-18:30	18:30-19:00
Gazte-lekua	Barikua: 19:00-21.00	Barikua 18:30-19:00

4.- BALIABIDE EKONOMIKOAK

Proiektu bakoitzak aurrez zehaztutako diru kopurua izango du programaketak egiteko. Hauek Udal aurrekontuetan zehaztuta agertuko dira.

5.- BALIABIDE MATERIALAK

Programa guztiak aurrera eramateko Dimako Udalaren instalazioak erabiliko dira.
Hala ere, Dimako udalarenak diren beste espazioak ere erabilgarri egongo dira ekintza bereziak edo programaketa bereziak egiteko: frontoia,parkea,eskolak...

6.- EUSKARA ETA UDAL HIZKUNTZA POLITIKA

Zerbitzua euskaraz eskainiko da eta bereziki bultzatuko da hizkuntzaren erabilera eta normalizazioa. Ohiko hizkuntza euskara izango da, erabiltzen den hizkuntzaren kalitatea bereziki zainduko da eta hizkuntza-eredu egokiak eskainiko dira, bai ahoz eta bai idatziz.

Hizkuntza biak erabili behar direnean lehentasun berezia emango zaio euskarari.

Zerbitzuaren jasotzaileekiko ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Udalak indarrean duen Euskara Plana errespetatuko da, eta esleipendunak zerbitzua garatzeko izendatutako langile guztiek ezinbestekoa izango dute C1 titulua edo baliokidea izatea.

7.- ZERBITZUAREN KONTROL ETA JARRAIPENA

Udal arduradunek behar bezalako jarraipena egin ahal izateko zerbitzuaren erabiltzaileentzat proposatutako helburuak bete diren

neurtzeko langileekin eta behar izanez gero esleipendun enpresarekin bilerak egin ahal izango ditu. Era berean, Sailek ondorengo eskumenak izango ditu:

- Zerbitzuaren kudeaketa zuzendu, gainbegiratu eta kontrolatu: bere kalitatea ebaluatu
- Zerbitzuen funtzionamendua, aldaketak, ordutegiak eta bestelakok arautu.
- Zerbitzuaren esleipendunek proposatutako dinamizazio ekintzetarako programazioa ikertu eta gainbegiratu eta izaera tekniko, inguruabar edo jendearen interesekoa delako balizko aldaketak proposatu.

Zerbitzu hauekin harreman zuzena duten ekintzak gainbegiratzeko ahalmena izango dute udaleko arduradunek, esleipendunak bere betebeharrak betetzen dituen ikusteko. Era berean, kontratuaren baldintza teknikoak eta zerbitzuaren gainontzeko inguruabarrak (…) betetzen diren ere ikustatu ahal izango ditu.

3 hilero balorazio txosten bat egingo da (dagokion zerbitzuari aurkeztuko zaiona). Ikasturtea amaitzen denetik gehienez ere hilabeteko epean urteko balorazio-txostena aurkeztu beharko da, parte hartzaileen, ikasturtearen nondik norakoen, programazioaren, izandako arazoen, etab.en berri emanez.

Gutxienez, hiru ebaluaketa bilera egingo dira urtean, urteko hiru oporraldien inguruan, udaleko arduradunekin, bai tekniko bai politikoekin. Bertan, aurreko hiru-hilekoari dagozkion txostena aurkeztuko da. Horrez gain, txosten horietan eranskin bat aurkeztu beharko du esleipendunak, hiru-hileko horretan zerbitzurako egindako erosketei eta burututako ekintzei dagozkien gastuen balantzea eta fakturak eta ziurtagiriak azalduz.

8.IRAUPENA

Kontratua urte beteko epean indarrean egongo da, zerbitzua martxan jartzen den egunetik hasita. Halaber; beste urte bat luzatu ahal izango da.

9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuenaren 308.2 artikuluak xedatzen duenarekin bat eginez, kontratuaren eginkizunetan jardun duten pertsonek ez dute inola ere lan harremanik finkatuko kontratatzen duen sektore publikoko erakunde nahiz entitatearekin, kontratua bukatzen denean, bertan lan egin duten pertsonak ezingo dute.